




**URDULIZ**

**Eleizea ta Erria  
barrutik barriztuta**

# Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

*Porque en nosotros*

*Zeure artea gurean*



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO  
BILBO AURREZKI KUTXA**

# ABERRIAREN EGUNA

## BA - DATOR

Antxiñatik aukeratu genduan euskaldunok Berbizkunde-eguna ABERRIAREN EGUNA izan daiten eta zalantza barik, aukerapena ez da txarto egiña: Uda-barria, izadia bizi barria artzen, neguko giro edo egualdi txarrak igarota. gabak laburtu ta egunak luzatu, ikuspegiak loratsu ta orritsu, eta eleiz-giro be orretarako lagun dala.

Egun orretan, pozez eta ondo-guraz, aberriagaz doguzan artu-emonak gogoratu bearko doguz, bana-ka naiz taldeka, etxeetan naiz errietan, errigintzarako naiz eleizgintzarako taldeetan.

\* \* \*

## POZ - GIROA

Aberria izenez eta izatez abertzaleentzat pozbidea da.

Izen orrek aberkide garanok poztu egin bear gaitu. Eta orrelan zan bear ba'da orain batzuk.

Euskaldunak alkarrentzat neba-arreba lez giñan, ikuspegi bardiñak ikusteak, guztiok lur-arlo baten gaiñean biziteak alkar-maitasunera geroiazan, eta benetan maitagarria zan gure lurra, maitagarriak alkarrentzat lur orretan bizi giñan euskaldunak. Berton be bai, eta geiago kanpo-errietan alkar aurkitzen genduan.

\* \* \*

## EGIN - BEARREN GIROA

Baiña aspaldion joan zan poz-giro ori.

Asi zan zori txarreko gudea, etorri zan zapalkuntza nagusia, Euskalerrriak erri zan ezkerro iñoz jasan ez eban lako zapalkuntza, laterriaren eta aberriaren arteko burruka ez-bardiña. Gudan lenengo, galtzeko zori txarrez! Eta guda-ostean gero, isiltasun negargarrian edo burruka-gogorrean biziteko.

Eta alkar-maitasunaren lekura, egin-bearra sartu zan. Egia da, au be maitasuna da baiña ez ain gozo ta pozezkoa.

Goitik tiraka, oitura zarrai jarraituz, albotik errigintzako alderdien eta eritxien burruka, aurpegi moztzak sarritan, oztasuna ugari, oiua alde batetik, iraiñak bestetik, erria aizu ta alderdia begiratu sarritan.

Norbaitek esan eban lez «Txerrenaren kea» sartu da gure etxera eta mundu guztian maitagarri giñanak, errukarri biurtu gara.

Bearrezkoa zala ori, aberria egoan zapalkuntza-lekutik aterateko? Ba leiteke...

\* \* \*

## URTENBIDEA

Dana dala, aurreragoko giro arek eukazan alderdi onak ez ziran baztertu-bearrekoak. Gogoratu ta agertu egin bear doguz aberri-egun onetan.

Izan gaitez alkarrentzat maitagarri euskaldunak garalako. Zer da alkarren aurka jarten gaituana? Eritxia? Gauza txikia!

Baketu gaitez geure izadi-giro zoragarriagaz, edertu dagigun gure inguruko euskal-izadia, kendu dagigun al dan neurrian kutsadura naiz samingarri dan guztia. Maitatu dagigun gure lurra, gure mendiak, gure ibaiak, gure itxaso...

Gure artu-emonak gozotu dagiguzan, alkar poztu, alkar onartu, alkar agurtu txera onez.

Egin dagigun erri-lana, jakintza-lana, ondasun - billaketea, iñor iraindu barik...

Ozpiñaren ordeez, ipiñi dagigun ezta.

# ON JUAN AGIRREZEZIAGA

Epaillaren l'an euskal erriak euskaldun zintzo bat galdu dau ta elizak, abade aundi bat, On Juan Agirrezeziaga Eguren.

Durangoko biotzean jaio zan 1900'ko urtarillaren 30'an sendi oso kristau ta euskaldun baten.

Lau anai arreba ziran, iru gizonenakoak eta bat andrazkoa, On Juan gazteena.

Gizonezkoetik bi Josulagun jesuita il dira eta andrazkoa beti abadearen ondoan.

Abade sagaratu ondoren On Juanek, sei urte inguruan Araban eta Bizkaiko Ugarten bere gogo artzaintzan igaro zituan 1931'ko orrietik 1975'ko urtarrillera Bilbo'ko Peña deritxon auzunan, 25 urtetan San Antoneko Parroki laguntzaille lez eta gero, Peñako eliza parroki biurtu zanean, bere burujabetza lortu ondoren, angó erretore izentatua izan zan On Juan.

Azkenengo 7 urte oneitan zar saritu-jubilatu lez, Begoñan bizi izan da.

On Juan bai artzain'ona ta euskaldun zintzoa!

Durango aldeko aitzen antzerako oñarri sakona euskan bere siñismenak.

Ixil ixillik, etenge lanean, andik ona etorritakoen auzunan ta fede gutxikoen artean, siñismena indartu eban, danak elizaren ingu-

ruan alkaturik, ume, gazte ta enparau biztanle guztiak aita on bat lez euken.

Dana zan ontasuna gizon orretan. Bere ateak beti zabalik danentzat.

Bere etxea danen etxea zan ta bertan sartuten ziran danak euren etxea bazan lez.

Guztientzako beti arrera ona: Zenbat txiro lagunduak! zenbat gaztetxuri lana aurkitu! etab.etab.44 urte luzeetan, siñismenean otza zan auzuna, berotu ta kristautu eban.

Jesusen Biotzaganako ta Andra Mariaganako maitetasuna, sakon sakon, oñarritu eban bere eliztarren biotzetan.

Dana danenentzat izanik, danak Jaunagana zuzendu zituan.

Abade ona bazan, ez gutxiago euskaldun ona.

Euskaldun jaioa, mundu dana maite eban, baña bear lez bere erriaganako maitasunagaz zorabiotuta egoan.

Euskaduna zalako agiraka ikaragarriak zan ebazan agintari ta elizgizon batzuen alde-tik.

Egunero etorten zan San Anton parrokiara emengo euskal kutsuagaz atsendenduteko.

Emen jaio edo emen babesu artu eben San Anton abesbatzak, Txistulari ta dantzari aldizkariak, Kili-Kili alkarteak, lenengo euskal katekesiak'50 liburuxka euskeraz argitaratu

dituan lantegia etab.etab. Danau ikustean, adurretan egoan, ain euskaldun gogo aundia eban O. Juan.

Zar saritua izan arren, orain be, egunero etorten zan San Antonera, elizako ta euskal erriko izpar onak jakitearren.

Batez, igande guztietan, tirrin tarra ezpada-be, or etorran emengo alkar euskal meza esatera.

Amazazpi urtetan meza ori esan arren oraintxe bere, erriagaz «GURE AITA»'abestutean On Juanen begiak malco bigunez bustiten zirean.

Bere siñismenak eta bere euskal zaletasunak eraginda, egiz.

Olako abadeak bear ditu gure euskal-erriak! Benetako Jainkoaren gizonak euskal-erri zintzo, garbi ta alai bat egiteko.

Egunotan Aitagana, abizen ta guzti (Agirrezeziaga abizena beragaz galdu da munduan, abizen orretakorik ez dago inor be mundu onetan) joan jakun On Juaneri esan ginkiogu:

urte luzetan elizan  
jaunaren zerbitzaria,  
**GOIZONENTZAT GORDE LEKU,**  
zuretzat goian argia.

GALLASTEGI'tar Kauldi

## AGUR, LAGUN

### (ON JUAN AGIRREZEZIAGA'REN ERIOTZAN)

*Alkarturikan urteetan  
bizi izan gara lagun on,  
eguneroko ibilaldi  
guretzat zala poz zorion.*

\* \* \*

*GOTXO jan tokin akeit artu  
izketa luze an bertan  
zu etxeruntza erdi makur,  
naiz ta urtetsu, ariñean.*

\* \* \*

*San Antonera beti lez ni  
antxe neukala lagun ona,  
lagun onena ba-dakizu  
guretzat dala Kristo Jesus.*

\* \* \*

*Alkar josirik gengoan gu  
larogeta amaika urtetan,  
alkarregana zintzotasun  
goi-maitasuna biotzetan.*

\* \* \*

*Danak ekien lagun onak  
giñala gaur be zartzaroan  
alkarrentzat mail-eustari  
oraingo urte makaletan.*

\* \* \*

*Joan zara goira, gure On Juan,  
zure laguntza ortik bidal  
ondo dakizu lagun baga  
bizite pozik ezin dot al.*

\* \* \*

*Urte luzetan elizan  
Jaunaren zerbitzaria  
gizonentzat gorde leku  
zuretzat goian argia.*

\* \* \*

*Nire oroimen zuregana  
nire oloia Jaunagana  
bere babespen zu sarturik  
izango dozu zorionik.*

\* \* \*

*Ni bakardaden illunean  
negar malkoak begietan,  
odol isuriz biotzean  
bakar bakarrik gau ta eguntan.*

\* \* \*

*Zartzaron gizon bastertua  
ikusten daula or ondoan  
eriotzako ate larri  
laster igaro bearrean.*

\* \* \*

*Siñismen aundik bakar bakar  
sustraitzen naua ni bizitzan.  
Itxaropena nire argi  
izartxo ori sortaldean.*

GALLASTEGIK

# ZER JAZO DA?

- Urte barriko illa, nastetsua ta iskanbillatsua izan da. Baita odolduna be.
- . Gipuzkoan'n, Errenteri-barruan, Guardia Zibillak tiroka, 3 zauritu dabez: euskal ertzaiñak, bear-bearrezkoak doguz eta laster
  - . Iraultza-zerga eskatzeko kartak ugaritu dira: euron artean bat, 4 urte ilda daroanari egiña. Getxo'ko alkateak eskutitza artu dauanean, ezetz zorrotza emon dautso.
  - . Lipperheide baitua (sekuestradua) izan da.
  - . Poliziak, ETA'tar diranen susmodun askori, eskua ezarri dautso.
  - . Gose-oporrean, Puerto de Santa Maria'ko espetxeratuak.
  - . Poliziak, bapateko eraso trebe baten bidez, ETA'k Zaragoza aldean, Taramoz erritxoan, atxilotua daukan Doctor Iglesias askatu dau.
  - . 1980'gneko azken-kontu agerpenak diñoenez, euskal-enpresen kalteak, berrogei milla milloz pezetaraiñoakoak dira.
  - . Lanik-ezaren egoerea larria da: bear-lekuak gitxitzen doaz. Eusko Jaurlaritzak 1982 onetan, erriaren bera-jauste ori gelditzeko alegin guztia egingo dau: ekonomia konpontzea, arlo izugarria baiña bearrezkoa.
  - . Frantzia ta España'ren arteko Arraintza-itunean, lebatz eskeintzak, 8.300'tik, 8.500'era Tonelada igotea lortu eban bakarrik.
  - . Lau urtetan Alemania'ko enbajadore izan dan Lotha Lahn jauna Gernika'n izan da: Gernika'ratze orrek, guda-aldian bertan jazo zana gogoan daukala, azpimarratu eta adierazoteko izan dala esan dau.
  - . Don Nemesio Etxaniz, abade ta idazlea il da: illeta, eleizkizunak Azkoiti, bere jaioterrian izan dira, 86 urte ebazan.
  - . Ondarroa'n, bertako, udal-ertzain bat il dabe.
  - . «Eusko Langille»en sortzaille izan zan Manu Robles Arangiz il da; 88 urte ebazan, Zeanuri'n izan dira bere illeta-eleizkizunak.
  - . Iskanbilla aundia sortu, Mitxelena'k «Muga»n, UZEI'ren, «Teknik Hiztegia»dala-ta zeresanak agertu ditunean: berak, eta Eujenio Ibarzabal'ek, erantzun garratz-minduak artu dabez, talde orretakoen aldetik.
  - . Ertzain izateko asmoz, 600 inguruk, Euzko Polizia Akademian, Arkaute'n, izena emon dabe. Bearrezko daben ciñarrizko eziketa egin ondoren, datorren udan, gure ertzaiñak izango doguz.
  - . Eusko Ikaskuntza'ko idazkari barri Edorta Kortadi egin dabe: orain artekoa, Zumalabe Agustin izan da. Jabetu da EAJ, Sabin Etxea'ren orubeaz: udalak, ez dautso balio-gaitzerik ezarriko.
  - . Ustez, Doktor Iglesias'en baituratzean eskuarturiko 7, espetxeratuak izan dira.
  - . Ondarru'ko Itxas-Komandante laguntzaillea, tiroz zauritu dabe, Bilbo-Beobia autobidean doala.
  - . Euzko Jaurlaritzako Eziketa-Sailleko Aolkulari dan Etxenike'k, «LAU» dalakoa, Gernika'ko Estatutuaren esiz-inguratze asikera dala, diño.
  - . Labaien'dar Antonio Maria'k, idazlan bat, «Evitemos luchas intestinas» izenburuaz: euskaldunon arteko burruka-bildurrez, «batua» onartzeko eta batera, Euskaltzaindiari h'ak gitxitzeko eskakizuna egin dautso.
  - . Oiartzun'go argi-indar torre bat apurtua.
  - . 1964'an itxi-azo eben Arrate Irratia, laster zabaldua izango danen barriak dagoz.
  - . Bilbo Irratiak, Euzko Jaurlaritzagaz ituna egin dau: sei orduko irratsaioa egunero emoteko diru-laguntza zati bat Jaurlaritzak emongo dautso.
  - . Galindo'ko ola baten, lanik bako gizon bat, kobre txatarrak eroazala, zaintzailleak il dau.
  - . Garaikoetxea Madril'en Calvo Sotelo'gaz; España'ko gobernuagaitik, dirudienez, ez da Lemoiz dala ta «Erreferendun»ik izango.
  - . Ez dogu izkuntza bardiña egiten» diño gure Lendakariak.
  - . 150 milloz pezeta ordaindu ondoren askatu ei dabe Lipperhaide: Ryan'en ilketaren urteurrenean.
  - . Bilbo Aurrezki Kutxa'ren 75'garren urteurrena ospatu da Bilbo'ko udaletxean.
  - . Droga-arazoa larria da Euzkadi'n: 1981'ean, 100 drogazale il ziran, Drogaren menpekoen Zuzendari Nagusi dan Azpiri osagilleak, iñoanez lengoan, Euzkadi'ko Osasuntza-arazorik aundiena alkool-droga dala.
  - . AEK'k, Jaurlaritz ta Naparroa'ko Aldundiari kritika gogorak: izkuntzaren plangintza orokorra ez da egin; diru-laguntzak txikiak dira, etab.
  - . Tribunal Constitucional» dalakoaren erabagiz, Aurrezki-Kutzak, EUZKO Jaurlaritzaren menpe izango dira.
  - . «Euskaltzaindiari Epaiketa» liburuaren aurkezpena. Donostia'n.
  - . Lipperheide'k, bere dirua, Euskalerrian ezarten jarraituko dauala diño.
  - . Anai Garate «zoriontsu» izendatzeko urrats bat egin dau Aita Santuak. (1857'an Loiola, Errekarte baserrian jaiotako ta Deusto'ko Unibersidadean, 1929'an il zan).
  - . Mario Fernandez'ek Iruñan: Foruaren obetzea, Foruaren Alopaztea izango litzake.
  - . «Zugat Eguna»: 50.000 zugatz gitxienez ipiñi dira gaur Euzkadi'n. Egun berean baiña, gurata egindako suak, Pagasarri'ko baso baten, zugazti aundia erre dau.
  - . Naitaezko geldi-aldiaren ondoren, arrantzaleek Euzkadi'ko Alkartearen uretara.

## EUSKALERRIAN

. *Iketa bi, tiroz Gipuzkoa'n bata, guardia zibilla izandakoa, Euzko Jaurlaritzako konserjea, Donostia'n, kalean. Bestea, guardia zibilla, Oiartzun'en, autoan etxerantz joiala.*

. *«23 F» dalako euzia asi da Madrid'en: epaituak alkarregaz ez doaz bat.*

. *«HABE»k eraturako lenengo ikastaroa, 810 ikasletik 665'ek gainditu dabe, oiñarrizko euskeraren ezagutzeari dagokion azterketa.*

. *Erroma'n, Nazioarteko Kristiñau Demokrazia'ren biltzarrean, Euzkadi'ren-ordezkarri, Retolaza ta Arzalluz izan dira. Arzalluz'en ustez, etorri ez daiten alegiñak egiten diarduenarren, Aita Santua etorriko da Euzkadi'ra.*

. *ETA p.m. banandua: 3'tik 2, izkillu - burrukaren alde.*

. *HABE'ko euskaldunbarri bik: euskeraz kalean egiteko ez dira oraindik ain prest aurkitzen; «euskaltegia mundu berezi bat da, isla bat. Eta kalea beste gauza bat.*

. *«Orrez gainera, euren inguruan bizkaieraz egiten danez «nagusiki», bertokoekin ez jake ain erraz egiten euskaltegietan batuaz euskaldundu direlako. Orrez ganera, «egunkarietako euskara ulertezina da».*

. *Bizkai'ko Auto-Eskolen alkarteko lendakaria, polizia batek balaz zauritu.*

. *Euskaltzaindiaren billera Donostia'n: F. Krutwig euskaltzainak, «Kultur hitzen orthographia euskaraz» izeneko txostena agertuko dau.*


. *Euren aldiko eusko ertilaririk onenetariko doguzan, Arteta, Losada, Regoyos, Iturrino, Tellaetxea ta Juan Etxebarria'ren ertilanen kopiakin, merkatu baltza sortu dabe, Euzkadi'n eta baita Ameriketara be: izugarritzko dirutzak lortu ei dabez guzurrezko ertilan orrekin.*

. *Agerraldia Baiona'n, Paris'ko gobernuari, «Seaska» ikastolentzat laguntza eskatzen.*

MAITENA'K BATUAK

# EUSKALTZAINDIARI EPAIKETA

(Latiegi'tar Bixente'k eta Onatibia'tar Dunixi'k)



- Nork ez dau jakin gura gaur euskerearen arloan zer jazoten dan eta bakoitxak zelako eritxiak daukazan?
- Nork ez dau jakin gura Batua zergaitik eta zelan sortu zan?
- Nork ez dau jakin gura 1968'ko batzarrean Arrantzazu'n zer jazo zan?
- Nork ez dau irakurri gura 1978'ko batzar nagusian Bergara'n zer jazo zan?
- Nork ez dau EUSKERAZAINTZA'ren sortzearen barria zeatz eta garbi artu gura?
- Nork ez ditu ezagutu gura Euskaltzaindiaren barruan batuari buruz diran eztabaidak?
- Nork ez dauz ikusi gura erri-euskereak, euskalkiak, zaintzeko dagozan zioak eta oztopoak?
- Nork ez dauz Euskaltzaindia arlo onetan errundun dan ala ez jakiteko bide argiak aurkitu gura?
- Eta nork ez dau nai batuaren bideak Bizkai'ko euskereari egiten dautson kaltea neurtu ta aztertu?

*Orretarako bear dozuzan argitasunak zeatz eta ugari aurkituko dozuz Latiegi ta Onatibia'ren liburu onetan. Irakurten asten zaranean ezin itzi izango dozu amaitu barik.*

# TXOMIN AGIRRE

Abade jakintzu onen lanak askotan irakurri doguz; batez ere bere liburu eza-gutuenak. (Kresala, Garoa, Auñamendi'ko Lorea eta abar. Baiña Txomin Agirre, beste lan asko egin zituan euskerari buruz. Esate baterako, neure Amari ta Ixekori sarritan entzun neutsen Txomin Agirre neurritz kanpokoia izan zala sermoiak naiz itzaldiak egiten.

Gaur egunean, galduta edo sakabanututa daukaguz berak egindako lan asko. Ala ere, itzaldi oneitako bat etxean daukadan YAKINTZA baten agertzen da ta, ZER'eko irakurleei itzaldi onen berria emotea, bidezkoa dala deritzait. Itzaldi onetan gauza asko esaten ditu; baiña gauza guztien gaiñetik, euskera da bere biotzeko miña ta itzaldiaren mamiña.

Ona emen, Agirre Jaunak indarra dala, arrokeria dala, diru-zalekeria ta ezjakiña dala-ta euskeraren aurka dabilitzazan guztiei emoten dautsen erantzun egokia; batez ere Unamuno ta bere antzekoei.

Ba'dira euskeraren etsaien artean, gaxorik ia illean dagoala-ta, Unamuno barragarriagaz il bear dabela esan daroenak. Bidegabekeri orreri, Zaragoza'ko «El Eco de la Cruz» aldizkaritxoan, erantzun egokia emon eutson.

Ara erderaz emon eutson erantzuna: Gura dozu ipuin bat edestutea?

Ara, ba. Nire errian gizon gaizto bat bizi zan. Birao aiñen eta itz zakarrak iturri batetik bere ao zikiñetik urtetan eben. Egun baten, Yaungoikoa'ren aurka yarki esaten ausartu zan: Yaungoikoa ain altsua ba'da, zer dala-ta ez nau, zigortzen, miña arratuta? Une atatik itz barik gelditu zan, itz egin gura ebanean ots zerbait egiten eban, baiña ezer be ez yakon ulertzen, kirteneriak bakarrik aituten yakozan. Eta aldizki erdelduneko itzak dakarzan lez aitatuako dodaz: Asi hace ese señor, sólo se entienden claro sus disparates.

¿Ha sido inconveniente el vascuence para que las provincias sean las más adelantadas de España? Y si no lo ha sido en el pasado, ¿cómo lo será en el porvenir? Dicen que el vascuence es corto, tan corto que con él no se puede blasfemar de Dios. Tal vez el señor Unamuno encuentre despreciable una lengua que no sirve ni aun para flasefemar, sin fijarse en que a eso, tal vez, deba ese pueblo la pureza de sus costumbres, la firmeza de su moral y

la virilidad de su raza. (El Mago tom. I. 18 ta 19'n ing).

Oin ikusi daigun, Agirre yaunak ori diñoenai, Bilbo'ko Campos Eliseos antzokian 1916'n egin eban itzaldian emoten dautsen erantzun bikaiña.

Euskerea gaxorik, ia illean dagola. Gaxorik bai, ia illean ez Yaungoikoa'ri eskerrak. Baiña gaxorik baldin ba'dago ¿zein ezta gaxoaren erruki? ¿Nola eztegu euskera babestu bear? ¿Noizko ditugu sendagarriak? ¿Zertan daude eskubideko yakintsuak? ¿Zer egiten dute zaintzalle izeneko gizon oiek? ¿Nolakoa da batez ere, gaixoa sendatu bearrean, geiago zauritu nai duan sendagillea? ¿Nolakoa da bere ustez ill zorian dagona yo ta zapaldu nai lukean sen agintaria?

¡O! Benetan arritzekoa da gure izkuntzari erbesteko gizon maltzurrok egin nai diotena; baiño ¡ai! askozaz arrigarriagoa da geuk euskaldunok, egin dioguna; bada geuk yardun degu geienbat euskeraren kaltean, geuk iraindu degu erbestetarrak baiño ere geiago, geuk bota degu geure ezpaitetik, geuk yaurti degu geure urietatik baso baztarrera, izurriz kutsutua dagoanaren gisa. Bai auzoetako mintzo apaiñak ezagutzean, gure izkuntza naras ta baldarra iruditu zaigu ta Euskalerriko semeak euskeraz mintzatzen ¡lotsatu egin gara! Ori egin oi dute, beren gurasoak goizetik gaubera aberastu diran edo zerbait ikasi duten ume dollorak. Geurea da ba erria, geurea obenik andiena.

Euskeldunak, nere anaiak; ernaitu gaitzen ta bide berriak artu ditzagun. Nik ba'dakit ederzaleak zeratela ta edonungo ederrari abegi ona egiten dakizutela. Ordu onean izan dadilla; baiño etzazutela orregaitik euskera iñun ukatu, etzazutela besteak baiño gutxiagotzat euki. Euskalerrian yaio zeraten guztiok, andiki ta beartsu, andikiak batez ere erri ta erbestean etxe barruan eta enparantzaren erdian ¡Yaungoikoagatik! euskeraz itz egin zazute. ¡O euskera kutun nere mintzoa! Etzera zu iñoren lotsagarri. Iraunkorra zera Ernioko gallurrak aiña; lerderra zera, Anboto erpiñen irudira; garbia zera Aitzgorriko elur zuria beste, liraiña zera Aralarko Aingeruaren gisa, nereza zera eta maita zaitut. Zure kopeta zabaLEAN antxiñako yatorri onaren kera ta kutsua dakuaskizu, zure sorbaldetan izkuntza gurasoen soiñeko apaiña daramazu.

Naiz ta gaur gure mendi basterrean apala egon, zure bizitza luzean alderdi

askotan on egiña zera. Zuk eman diezu beste mintzo askori, zure izatearen mendua, zure argiaren izpia, zure suaren txingarra; zure odolaren gorriunnea. Izkuntza berri oiek arro ta gangar ba-dabilta ere, beti zure zorretan egon bear ko dute. ¡O euskera maitagarria! Zuri nai dizut eresi. Oso aurtxoa nintzala, oraindik seaskatxoan nengoala, amaren laztanaren aoz sartu ziñan nere biotzean eta ordutik aurrera nere biotzean zauzkat. Etzera zu neretzat egundaiño txiro ta itxusi; zu zera neretzat izkuntzarik gozo, guri, mamintsu ta zoragarriena. Oraindik ezea zaude, oraindik kemena ba-dezu, oraindik lore berriak eman bear dituzu. Gure animetan dago ta gure animetatik aterako degu zure azia; geuk ereingo zaitugu zoro ta zelai, ibar ta mendi, egi ta baso, lur guztietan, erneko da oparo zure landara berria; gure izerdiz ta bear ba'da gure odolez narotuko degu, ta geuk azalduko zaitugu, azkenez, beste izkuntzen erdira onela esanaz, ara emen euskera: ikusi zazute zein mardula dagon, begira zazute zein egoki apaindua yarri degun.

Ori egin ezik, ezkiñake seme onak izango.

¡Gora zu, nere mintzo zarra, gora euskera maitagarria!

Eta gure lanean diardugula iñork ezer esan eta ixilik egoteko esango ba'leuski-gu... Agindu ori da arkaitz gaiñean dagon arranoak, arranoa dala ta beste gabe baso itzaleko erretxiñolari esango balio bezela: Ixo, itzi zazu bein zure yarduna, ixildu zaitte. ¿Ixildu nadilla? —erantzun dezaioke txoriak—. ¡O! ezingo naz iñola ixildu; berezkoa det nere txio yotzea, errekarteko iturriak beren murmurra, zelaietako loreak bere usaia berezkoa duten antzera; kendu zadazu nere bizitza, baiño ez nere mintzoa, ba'da neri dagokidan txio ezti gabe, ni ez naiz erretxiñol.

Era beran esan dazakegu euskalerriarrok; yakin zazute agintariak: gure mingañera euskera berez datorkigu, euskalduna euskera gabe ezta euskaldun, ta euskaldun izatea ezingo digu iñork debekatu».

Ara emen ZER'eko irakurle maiteok, Txomin Agirrek egindako itzaldi zoragarria. Onen antzeko itzaldi asko egon bear dira bazterretan. ¿Zergaitik saiatu ez, al diran guztiak bildu ta argitaratzen? Era ontako lanak egiten zabilatzaten jakitunok ba'dezute nun aztertul

AZPIRI'tar Joxe mari

# BIZKAIERA-ADITZA DALA-TA BITARAKO ADIZKERAK (1)

Bizkaiera-aditza dala-ta, leengo egun batez abade-lagun batek auxe esan eustan: «Leengo ZER aldizkarian Olazar'ek egurra emon eutsun». Eta nik ari: «Ba-dakit. Ain zuzen be, arako galiziar biren artean zan alkarrizketa ekarri neban gogora:

Batak besteari: Parece que tiran piedras.

Bigarrenak: ¿En qué lo conociste?

Leenengoak: Diérunme tres».

Eta orduan, Olazar jaunari ZER aldizkarirako neure erantzuna bialduta gero, idazlantxo au egitea otu yatan, argibide batzuk agerturik.

\* \* \*

Arritua geratu nintzan Larrea'n orain urte bi Aita Onaindia'k esan eustanaz: Puxana'ren ustez, iñon erabilten ez diran adizkera batzuk ei'darabizuz *Euskal-Biblian*. Esaterako: eroan *daistan*, *daiskun*, *dagitsen* eta olakoak». Berba batez, subjuntiboko adizkerak ziran.

Egun aretantxe egin neutsen Aita Onaindia ta Puxana jaunari idazki bardiña, adizkera arein jatorsuna agertzen eta egiazten neutsela. Baita Puxana'k beingoan erantzun be (1980-VII-8):

«Azkue'k *da(g)itsan-da(g)itsen* ez dau iñoz be aitatzen, nik dakidala beintzat. Leen-persona bai *da(g)istan-da(g)iskun*. Baita bigarrenean be, baiña irugarrenean ez. Orrexegaitik idatzi nebazan neuk be onoko lerro oneik: «Los afijos NORI que pide el auxiliar *egin* para la tercera persona, singular y plural, son O y OE, no TSO y TSE (estos últimos se usan con flexiones del auxiliar *ukan*». «Euskal-aditza-bizkaiera», 14 orri). Baiña oker nengoan. Oleta'ko aditzaren iker-lana egikeran, neu be arritua geratu nintzan, *daitsen-daitsezan* adizkerak bertan bizi izan diran eta gaur be bizi diranak emon eustezenean. *Daistan-daiskun* eta idekoak beti entzun izan dodaz Oleta'n, baiña *daitsen-daitsezan* an erabilten ziranik ez nekian neuk be. Burutik joan egin jatazan, antza... *Da(g)itsan* eta *da(g)itsen* eta abar jatorrak ez diranik, errian erabilten ez diranik (gutxiago izanarren) eta liburu zarretan agertzen ez diranik ezin daiteke esan». Onagiño Puxana.

Beraz, Azkue'k leen eta bigarren personetarako adizkerok onartu egiten dauz. Eta zegaitik ez irugarrenerakoak?

Ori orrela, jarraitu daiogun ariari.

Batzuetan, adizkera batzuek esanai bi daroez edo eroan daikete. Adiskera orrei, *bitarako adiskerak* deritze (formas verbales anfibológicas). Esate baterako: eroan *da(g)idan* adizkereak esanai bi izan daikete: nik zerbait eroan (edo NOR-NOK) eta arek niri zerbait eroan (edo NOR-NORI-NOK).

Bizkai'ko erri askotan egoki be egoki bereizten dabe adizkera ori, baita orren antzekoak be. Zeintzuk dira erri orreik? Azkue'ren eritziz, Bermeo, Mundaka, Ubidea, Zigoitia ta Oleta (Morf. Vasca, 746 orri.) Eta nik dakidanez, baita Berriz, Garai (Rufina Oregi), Elorrio ta inguruko erriak be; baita Aramaio be (Jose Beitia, 78 urtekoa).

Orregaitik, Azkue'k artez dakar urrengo au: «Tienen estas flexiones provistas de s la ventaja de evitar anfibologías». Aquel «esan *daigula* apaldu baiño leenago» de *Peru Abarca* (96-7), puede significar «que lo digamos antes de cenar» y también «que nos lo diga...» (Morf. Vasca, 747 orri). Puxana'k be orixe berori diño («Euskal Aditza-bizkaiera» 59 orri).

Ikusi daiguzan gaur *subjuntiboko orain-aldian* dagozanak (Azkue, Cortés Manterola eta Ollendor'egandik jasota) (erriak mako-arteko *G* jan egiten dau geienetan, eta idazleak batzuetan bai eta beste batzuetan ez):

eroan DA(G)IZUEN	para que yo lo lleve = DA(G)IDAN para que él me lo lleve = DA(G)ISTAN
eroan DA(G)IZUN	para que V. lo lleve = DA(G)IZUN para que él se lo lleve a V. = DA(G)ITZUN
eroan DA(G)IGUN	para que nosotros lo llevemos = DA(G)IGUN para que él nos lo lleve = DA(G)ISKUN
eroan DA(G)IZUEN	para que vosotros lo llevéis = DA(G)IZUEN para que él os lo lleve = DA(G)ITZUEN
eroan DA(G)IOEN edo DA(G)IEN	para que ellos se lo lleven a él = DA(G)IOEN edo DA(G)IEN para que él se lo lleve a ellos = DA(G)ITSEN (ez dakar Azkue'k) para que ellos se lo lleven a ellos = DA(G)ITSEN (ez dakar Azkue'k)

Zegaitik DA(G)ITSEN eta DA(G)ITSEEN eta ez DA(G)ITSOEN? *Arei* danean, erririk geienetan *O* bagarik esaten dala-ko, *O* ori *ari* rentzat itzirik, onela:

ARI

nik <i>da(g)iodan</i>	guk <i>da(g)iogun</i>
zuk <i>da(g)iozun</i>	zuek <i>da(g)iozuen</i>
arek <i>da(g)ion</i>	areik <i>da(g)ioen</i>



Orregaitik, gai onetan, Aita Villasante'k A. Karmelo Iturriak eta Zabalgoxeazkoa'k argitaratu eben *Paradigmas de la Conjugación Vasca'ri* jarraitzen dausat. Ona emen biak:

Azkue'k (eta Puxana'k)	Villasante'k eta ab.:	Nik
AREI	AREI	AREI
nik daiuedan	nik dagiedan	nik da(g)iedan
zuk daiuezun	zuk dagiezun	zuk da(g)iezun
arek daioen	arek dagien (1)	arek da(g)itsen (1)
guk daioegun	guk dagiegun	guk da(g)iegun
zuek daioezuen	zuek dagiezuen	zuek da(g)iezuen
ellos (areek) daioeen	eurek dagien (1)	areik da(g)itseen (1)

Baiña begira: DA(G)IEN adizkerek iru esanai dauz; eta, leen egin dogunez, orain be onetaraxe banandu daikeguz:

eroan DA(G)IEN	para que ellos lo lleven = DA(G)IEN
	para que él se lo lleve a ellos = DA(G)ITSEN
	para que ellos se lo lleven a ellos = DA(G)ITSEEN

Adibidez: «Ez dagitsela iñok konturik artu» (*Euskal-Biblia*, Tm 2.<sup>a</sup>, 4, 16): Que no se les tome en cuenta (*Biblia de Jerusalén*). Itzez-itzez: Que nadie les tome cuentas. Liturjiakoak (*C. Urtea*, 66 orri.): «Ez al dautse iñok konturik artuko»: Ojalá no se les tome en cuenta. (AL itzari buruz, ikusi Azkue, *Morfología Vasca*, 256 orri., 418 zenb. Leenengo itzulpenean agindu egiten da, aurki; bigarrena, barriz, «modo optativo edo desiderativo» da: *guraria*. Olabide'k: «Ez bekie yauki». Eta Duvoisin'ek: «Ori ez bekiote iratchik»).

Beraz, erabili dagigun «eroan DAGIOEN» areik ari soillik esateko.  
Urrengo zenbakirako: Subjuntiboko leen-aldia.

KEREXETA

## EUSKERAZAINTZA (EUSKERAREN ERRI - AKADEMIA)

Jaun txit argi orri, agur:

Lendakari zaituan Eusko Jaurlaritzak «Euskararen Aholku-Batzordea» sortu duala jakiñik eta 17 aolkulari edo batzordekideen izenak izparringietan ikusi ondoren, Euskerari buruz eztabaidatuena dabillen arazoaren aurrean Batzorde ortako ez-oreka ta alderdikeria nabari-nabariak agerian salatzeraz beartu du EUSKERAZAINTZA Euskerarekiko ta Euskalerrri-aganako bere leialtasunak.

Eta ez-oreka ta alderdikeria oiek, ondorengo atalotan dituzu argi ta garbi zeazturik:

1'goa: Bete-betea Euskeraren serbitzuko lanean diarduan EUSKERAZAINTZA ez du ezertarako aintzaketat artu Jaurlaritzak, eta erakunde batzuei euren arteko norbait aurkezteko aukera ta egokiera eman dizkien emon deuten Jaurlaritzak orrek, ez dio / ez deutso iñolako ta ezelako aukerarik eta aipamenik ere opa izan EUSKERAZAINTZA'ri.

2'goa: Euskerari dagozkionetan / dagokiozanetan joera ez-berdiñak dabilzanez, oien arteko oreka aurkiturik dagola ikusi-erazo nai izan arren, benetako ez-oreka nabarmena dago Batzorde ortan, geien-geienak ain juxtu ere dalako «batu» orren aldeko borrokan gogor aurpegi eman dutenetakoak diralako, eta... «zinpetuak», au da «juramentados» ere badiralako bat eta bi baiño geiago.

3'goa: Erri-euskera bete-betea landu ez dutenak, gaiñera, geiegi dira Batzorde ortan, euskerazko beren idatzien kopurua, sakontasuna ta akatsak aztertzeak uka-eziñeko aitortpena egiten daunez.

4'goa: Erri-euskera biziaren aldeko lanean eta ekiñean diardutenen artekoak —ez bakarrik gutxiegi!—, Batzorde ortan iñor gutxi artu ditu Jaurlaritzak.

5'goa: Euskalkirik erabilliena BIZKAIERA da zailantzarik gabe esateko —eta orain baztertu nairik borrokatuena ere bera da!—, baiña bitartean gutxiegi dira Batzordean Bizkai'ko idazleak ta jakitunak, eta are gutxiago BIZKAIERAREN ALDEKOAK.

Lendakari jauna, ez-oreka ta alderdikeria oiek zuzenbidean orekatuko ta Batzordea EUSKALERRI OSOAREN serbitzurako era OSOAGOAN antolatuko duzun itzaropen betean, zukanako begirune guttiz eta Euskera-rekiko leialtasun zindoz, agur.

Ondarru'n 1982'go otsaillaren 20'an.

«EUSKERAZAINTZA»'ko

Lendakari-ordea OLAZAR'tar Martin

Idazkaria GASTAÑAGA'tar Josu

JAURLARITZAKO LENDAKARI  
JAUN TXIT ARGIAI

GAZTEIZ'era

*Liburu bat kaleratzen danean —bardin seme bat argitaratzean be—, kritikarialiak zuur egoten yatzuz, baea eskuan artuz, seme barri ori arduraz eralgiteko.*

*Batzuk, akatsik aurkitu ezkeru, errukitsuago dituzu; beste batzuk argi adierazo oi dabe euren barru zitala.*

*Egilleak sarri —liburua kaleratu dauanak— pazientzi aundia bear dau bere seme nekez ekarriagaitik esaten dituen tentelkeri guztiak iruntsi al izateko.*

*Kritikarialiak, egiari berea emoteko, eskubide osoa dau argirataratu dan lan edo liburuari buruz bere eretxia emoteko.*

*Baiña kritikari ona danak, liburuan datozen alderdi onak eta txarrak bereizten jakin bear dau: liburu batek, ain zuzen be, izango ditu bere utsak, baiña bere alderdi ederrak be bai.*

*Eta zergaitik, sarri egin oi danez, oneik ixildu ta areik puztu?*

*Nik oraintsu, Santa Teresa'ren il zanetiko IV'garren eunurte burua aurten dogula-ta, atera dodan «Egoitzak» —Santa Teresa beraren «Las Moradas» liburu bikaiñaren itzulpena— be izan ditu bere goralpenak eta txibitotsak.*

*Kritikarik geienak, danak lez esan bear, zentzunezkoak izan dira. Ez noa emen danak aitatzen. Baiña bat bai, gizon jakihitsuak egiña dalako.*

*Aurten, urtarrillaren 18'an, onela idazten eustan gaur Gautegez-Arteagan parroko dagoan Pedro Puxana'k eta oraintsu, ederto euskeraztuta, Bizkai'ko Forua emon dauskunak.*

\* \* \*

«Agur, Jainko aundi ori: Zuk emon zeunstan «Santa Teresa» izeneko liburua irakurria dot. Ederto egiña, benetan. Teresa Deuna aundia zana banekian. Ain arrigarria zanik, baiña, ez neban uste. Orein EGOITZAK irakurten diardut. Gainbegiratu bat emon dautsat liburuari, eta zati batzuk irakurri be bai.

«Idazkun onetan aditzari buruz neure eritxi apala agertu gura dautsut. Jainko txiki batek zer esan daikoe Jainko aundi bati? Gu, jainko txikiok, ausartak gara, eta ausardiaren frutu izan bedi emen ezarriko dautsudan guzti au.

# EGOITZAK

«Lenengo ta bein, auxe agertu gura dautsut: iztegi ugari ta aberatsa darabilzula. Ainbeste ta ainbeste itz egoki ikas daiteke liburuok irakurrita. Aditzari buruz, esaldi bat edo beste aitatu nai dautsudaz. SANTA TERESA izeneko liburua onan amaitzen dozu: «Bedi guztion Irakasle». EGOITZAK deritxan liburuan be, azkenaldian, 237 orrialdean, onan diñozu: «Jainko gure Jauna bedi beti-betikoz goretsia ta bedeinkatua».

«Onelango esaldiak ainbat datoz irakurri dodan liburuan. Gogozko dozu, bai, «bedi» soillik aginte-eran (inperatiboan) erabiltea. Nik ez beuke onelan idatziko. Ona zergaitik. *Bedi guztion Irakasle* esaldiak, esate baterako, nire eritxi apalez ez dau ezer esan gura. *Bedi* jokoa *edin laguntzaillearena da*. *Edin* laguntzaille au aginte-eran, aal-eran eta subjuntiboan erabili oi da. Baiña, *edin* aditz-laguntzaille au, orixe da: laguntzaillea. Ez da bera bakarrik jokutzen. Aditz - izena (nombre verbal) bear orretarako (*etor bedi, egon bedi, izan bedi*, eta abar). *Izan* aditza be laguntzaillea da, baiña ez laguntzaillea bakarrik, lokarri-aditza (verbo copulativo) be bai. Esate batera ko: «Ni euskalduna *naz*». Esaldi onetan *naz* jokoa ez da laguntzaillea. Laguntzaillea be bada, «Ni etorri *naz*» esaldian, adibidez, *naz* laguntzaillea da. *Izan* aditza gaur ez da jokutzen inperatiboan, ez subjuntiboan, ezta aal-era edo potentzilean be. Beste laguntzaille bat bear dau: *edin* laguntzaillea. onelan esango dogu: *izan bedi* (bekit, bekizu, bekio...), *izan dadin* edo daiten (dakidan, dakizun, dakion...).

«Aitaturiko esaldiok onelan bear leukee idatzi, nire uste apalez: *Izan bedi guztion Irakasle; Jainko gure Jauna izan bedi... Bedi* bakarrik erabiltea, *edin* aditza bera bakarrik jokatzea ez danez, ezebez esatea da».

\* \* \*

## IZAK

Gero, EGOITZAK liburuan batez be, *jardun* aditza eta irar-uts batzuk aitatu ondoren, guztiz gizalegez amaitzen dau bere eskutitza.

«Ona jainko txiki baten ausardi ikaragarria. Baiña zu Teresa amaren seme zaitugunez, eta Irakasle aundi onek santutasunaren giltzarritzat *apaltasuna* ta *maitasuna* (otoitzez gaiñera) ezarri zituanez, ez dot uste barru gogorrez oarkizunok artuko dozuzanik. Parkatu ezerrez onen ausardia! Eta beste bat arte. *Puxana*».

Bai, egia, ausart edo urtenka lez agertu oi gara ez gitxitan, eta olakoari onela esaten dautsa erriak: «Ori ez dok atearen azpiko orria». Baiña orrexi be norbere eritxi apala —beti apala ez bada be— agertzea ez da egundo be gizalegetik edo egokitasunetik urtetea. Bioa, ba, zerbait *bedi* ori dala-ta.

Antxiña gure euskerak laguntzaille *izan* barik erabili oi eban *bedi* ori, barrero be biztu ta erna-barritut doala esan daikegu. Guk, eliz-gizonok, egunero esan eta ausnartu bear dogun *Orduen Liturgia* deritxagun liburu ederrean bertan ez datoz orrelako gitxi. Garizuma aldian gagoz nik au idaztean eta gaur goizean, ain zuzen, Gorespen ereserkia, onelan kantatzen:

«Egille on, entzun gure  
otoitza eta negarra;  
*bekigu* barau-aldi au  
salbabidezko indarra.»

Eta azkenengo erantzunetan: «Kristo, Jainko biziaren seme, erruki zakizkigu». Onako asko agertzen yaku bai salmuetan eta bai enparauetan be. Zer esan gura dau, beraz, «bekigu» orrek? Zer «zakizkigu» orrek? Itz utsak ete? Ala bear bada, «bedi»-tik «bekigu»-ra aldea ete? Ez al datoz biok «edin»-etik? Nok askatu filosofí onen kora-pilloa?

Jarrantuz, diñozu: «*Izan* aditza gaur ez da jokutzen, baiña leen bai». Gaur-egunean ez ete gabiltz, ba, leengo euskal aditzaren alderdi bikaiñak be, gizaldien eta aurretikoen zabarkeriz galduriko forma zear areik be, barriztu nairik?

René Lafon'ek naiko sakon ikasi ta aztertu dau euskal aditza, bere liburu mardul «Le système du Verbe Basque au XVIe siècle» deritxanean. Leengo zaarrak zelan erabilen eta abar, maixuki eskintzen dausku.

«Edin»-etik datorren *bedi* laguntzaille bakarrik ete dogu? Ala, nire *bedi esaldian lez, beste zerbait be esan nai ete dau berez? Azkue albora itxita be, Schuchardt eta Lafon'ek «edin»-en sustrai «di» zerbait dala diñoie (*devenir*, au da jazo, gertatu), edo-ta «llegar a ser», zauri bat gaiztotu, adibidez. Eta orduan «edin» en «di» sustrai ori emen ez da laguntzaille lez erabilten, aditz «independiente» lez baiño. Elizanburu'k onela «Arbasoak» deritzan poeman: «Zer haiteke,i,oiharzuna,/ heien oihua bai-zen?».*

Etxepare'k ez dakar «izan» aditza aginte-eran; Lizarraga'k bai, ostera, «biz» (sea él) darabil, eta «bira» (bire). 1596'ko Errefrau txortan be «adi» dator: «Astoagaz adi kirolan», au da, jolas adi astoaz eta okotzean emongo au. Zuk diñozu: «Onelan esango dogu: *izan bedi* (bekit, beki-zu, bekio, izan aurretik dabela, *izan daiten* bezela». Eta Lizarraga'k (1 Tim.,4,13): Ethor nadin artean, *akio* irakurtzeari...». Eta Garibai'k: «Adin onari akio». Olaeta'n eta Berriz'en: Ementxe naukazu zeri *nakio*, Azkue'k bere Iztegian «ekin» itz-pean dakarrenez.

Antxiñako aginterak onela ziran: «*Naizan* (sea yo); *aiz* (sé tú); *biz* (sea él); *garean* (seamos nosotros); *zara* (sed vosotros); *bira - bire* (sean ellos)». *Flexiones del Verbo vizcaino*, 29'garren orrialdean. Gaur *biz*'en ordez, *izan bedi* (beite, bite) esaten da. Geure egunotan be, baiña, ez gitxik *biz* erabilten dabe, Olabide'k adibidez. Eta guk *bedi, izan bedi* esan bearrean.

Zergaitik olan? Beste errazoi batzuen artean, augaitik be bai. Poetok! ba-dakizu: olerkari ta poetai, latitar Horatio'k diñoanez, eskubide geiago emoten yake olako lege estu samarrak austeko, naro ta eznetan, kainko txikien garraxiai jaramonik egiteke, buru-zut aurrera joteko.

Dana dala, jainko txiki ta aundion artean, ondo datorrigu egokitasuna, alkar, aitzea, eta gure Puxana jakitunak be, ez dot uste biotz errez artuko daustanik nik asmo onez egiñiko zuriketa au.

# Euskalerritik Mundura Begira

## ISRAEL-GOLAN

Golan'go lurak dirala-ta, jendeen ezpaitan dabil azkeneko aldi ontan Israel'en izena.

Poloni'ko iska-millaz baliatuaz, era zikiñ eta maltzuerrean biurtu omen dau Golan Israel-lur.

Ori diñoe beintzat jendeari Poloni aztuarazi nai dautsoen mundu guziko Errusi-zale eta komunismu-maitale guztiek.

\* \* \*

Golan, lur goitia (altua) da; arrizko lekaroz (desiertuz) betea; legorra, urik gabekoa.

Baña ba-dauz nekazaritzarako balio daben aranak (ballarak). Ta jakiña mirariak egiten dabezen israeldarrek zerbait egin daiteken toki orotan.

Baratz oparo biurtu dabe len ondarrezko lekaro utsa zan Negeb.

Ori bera egingo leukee Golan'en ere. Gañera, azi eta azi ari dalako, lur geiagoren bearrean aurkitzen da Israel.

\* \* \*

Lurra ez ezê, bear dau eskiertasuna (seguritatea) ere.

Golan'en azpian «Galilea'ko Itxasoa» esan oi yakon Aintzira dago, eta an goitik, urteetan, aintziaren ertzetako israeldar nekazarietiroka ari izan dira Siria'ko gudariek.

Kañoien bidez berriz, Galilea'ren erdia beren menpean dabe siriatarrek.

Naitanaiezkua eban beraz Israel'ek, Golan'dik siriatarrek uxatzea.

1967'ean egin eban ori: «Sei Eguneko Guda» irabaztean.

Sei urte geroago, Annuar El Sadat'ek piztuta «Yom Kippur'eko Guda» asi zanean, Israel'en aurka sartu zan Siria ere, Golan bir-irabaziko ebalaren ustean.

Israel irten zan berriro garaille, eta bere mendean artu ebazan, lengo mugetatik aurrera, Golan osoa ia Damasko'raino, eta Sinai'ko Erdi - Ugarte (Penintsula), berriro.

Egoaldean ere, El Kairo ia-ia Israel'ko kañoiek atxikitzen zutelako, laisterka eta leia bizian pakea eskatu bearrean aurkitu ziran arabitarrek.

Ipar Amerika'k bultzata, itzuli zion Israel'ek Siria'ri Golan'en erdia, et ari da Ejito'ri Sinai'ko Erdi-Ugarte itzultzen.

Asiera-asieratik esan aban ordea Golan'go sakarlderik ez ebalatuzuliko.

Zergaitik ez ote ebazan orduan Golda Meyer'ek lur aiek Israeldar biurtu? Ipar Amerika'k, arabitarrek Errusi'ren aldera igaroko ziralaren bildurrez, ori egiten utzi ez eutsalako.

\* \* \*

Dana dala, orain egin dau ori Israel'ek, iñor oartzeko, mundu guzia Poloni'ra begira dagoanean.

Egia da Israel'ek Golan'go lur garaiak bere eskiertasunerako bearrezkoak dauzala. Baiña bai al dau Siria'ko puska bat Israel'ko puska biurtzeko eskubiderik?

«Ia Siria Siria dan ezkerko lur oiek gureak dira», diñoe siriatarrek». Bai; baiñan nola irabazita? Leenago, Dabid erregearen aroan-eta, lur oiek israeldarrena ziran», erantzuten dautsee israeldarrek.

Israel'ek ez dautse Golan'en bizi diranei israeldar izan nai dabenik itaundu. Jende arek, «ezet; ez ebalatuzuliko israeldar izan gura», erantzungo eban.

Españi'k ere Jibraltar Españi dala esaten dau. Baiña Jibraltdarrek ez dabela españiar izan nai diñoe. Españiarrek ordea, ez dabela an bizitzeko eskubiderik «erantzungo dautsee, eta «askoz gutxiago nungotar izan nai daben esan aal izateko eskubiderik».

Orixe bera da israeldarren arazo: «Golandarrek ez dabe Golan'en bizitzeko eskubiderik. Bizitzeko eskubiderik ez dauanak, mintzatzeko eskubiderik ere ez dau. Bijoaz andik kanpora israeldar izan gura ez ba'dabe».

Ori, ordea, esan al daiteke zuzentasunaren araura? Bein mailla ortara ezkerko gaiñera, arazo ori Palestina osoaren arazo da; datorren illean aztertuko dogun arazo.

LATIEGI'tar Bixente

# BARANDIARAN'DAR J.M.'EGAZ

Ondo irabazita dauken aomen aundiko Barandiaran'dar Joseba Mikel jauna —askorentzat Joxe Migel— ezagutzen ez daben gitxi izango dira bear ba'da Euzkadi'rik geienian eta batez be, alan-bearrez, euzko izparkari ta beste arlo askotako jakintsuen aldamenean sarritan dabilzananen tartean, baiña, bat edo beste ba-gera orretarikuen artean be, bera, Joxe Migel arpegiz ezagutzen ez gendubanak, iñoz be ez gendualako aukerarik beragana aurkeztuteko, nai-ta amets bat baizan lez genduan geure barranean beraz, on Joxe Migelégaz itzalditxu bat egiteko.

Orixe dala-ta eta beste zeregin barik Otsalla'ren larunbata baten Ataun'en aurkeztu gintzazan, orretarako eun da geiago anei-neurkin (kilometro) berebillez egin ondoren, ta beste ainbeste itzulikeran, «San Gregorio» auzune baiño pizkat lenago, beren Sara etxe politan, Etxarri'tar Iñaki, Landaxo'tar Joseba-Mirena ta lerro oneik idatziten dituana. Benetan txeratsu bertan artuak izanik, beste askotakoak izan ba-gintzan lez.

\* \* \*

«Arpegiz ezagutzearren» esan dogu ta alantxe zan, bada, irakurten zalea dan beste edozein baizen ondo, bearbada, ezagutzen doguz On Joxe Mikel'ek egindako lan bikaiñak, bai euzko elerti-arloan, bai euzko-errijakintza edo folklorea eta batez be zarkin-izti edo arkeoloji arloan.

Onegaitik, Euzkadi'ko azkarrena eta ludi guztian bera, onenatarikoa izanik, ezdagolako gaitz aomen aundiko gizon jakitun orixe ezagutzen.

Bera lako gizon azkar, txairo ta kementsu batek baiño bestek ezin litzakelako egin orrelako lan ixugarria ta euzkotarrantzat ondasungarria.

Gitxi batzuk baiño ezdira, bear ba'da, oartuko berak, On Joseba-Mikel'ek euzko jakintza'ri, ta batez be zarkin-iztia'ri emon dautson bultzakada, goralmena, Ludi guztiari adirazoten emonaz eusko-abendaren sor-lekua edo, gitxien baten orain bost edo amar anei (milla) urte, ementxe lurralde ontan, gaur-egun Euzkadi izen gozoaz ezagutzen dogun lurralde ontan bizi izan dala euzko-abenda zarra. Euzko Mendigoizalean Ereserki baten dirauskun antzera: «Urtzi deunak goian/, gizona lurrean/, Euzko abenda zarra/ lur-onen gaiñian».

\* \* \*

Orixegaitik bakarrik, irakurle, zor aundia dautsegu euzkotarrok Barandiaran jaun agurgarriari, orain artean eskiñi yakozan omenaldi guztiakaz be ordaindu ezin dautsogun bestekoa, berak beste iñork



baiño obeto erakutsiten emon dabelako euzko abendaren berezitasuna.

Ez dago esan bearrik, benetan ondo artuak izan gintzazala beren etxe alaian bai bere etxe-zain daben emakume euskalzaleak eta bai, zelan ez! Joseba Mikel'ek, len esan dogunez, antziñako adizkideak edo senditarrak izan ba-gintza lez.

Oso atsegingarria iduritu jakun Jose Mikel, izketarako abots zolia, entzumen eziñobia, adimen bikaiña ta jakitun-jakitunak geienetan daben apaltasuna, bera baiño ez-jakiñagoak gintzazanokaz itz argi egiteko.

Soin lerdena ta ikusmen ederra, Egiz beren larrogei ta amar urteen jakitun egon ezik, iñork eleuskioz irurogei ta bost edo sei urtetik gora eretxiko.

Benetan zorionekuak gera euzkotarrok Jainkoak orrelako gizon zindo ta jakitunak emon dauskuzalako!

Galdera asko egingo geuntsozan jakintsu areri, entzungarria izanik, asko ikasi geinkealako beragandik, baiña, ez genduban berak emondako adiskidetan anaikorra aspertuazoteko erabilli nai. Eta gitxiago geugaz luzeroago euki, beste batzuk itxaroten eukezalako noiz alde-egin.

Oso gizon goralgarriak izan doguz euzkotarrok azkenengo urteotan; Agirre, Kanpion, Galindez, Irujo, Ajuriagerra ta abar luze bat eta, bai-ta ba-doguz Leizaola, Garaikoetxea, Arzalluz ta beste abar luze bat bere, baiña, bene-benetan zerbait baiño geiago euregaitik egin bear doguzanak, aztu-gabeak diralako, Arana eta Goiri'tar Sabin euzkotarrok benetako Aberria zein zan irakatsi euskulako eta, Barandiaran'dar Joseba Mikel Sabin'en Euzkadi ontan beti euzkotarrok bizi izan dirala Ludi guztiari erakutsiten emon dautselako.

Oroigallurik iñori jaso ba-iako, Irakasle oneik bear leukie, bai orixe!

ALTUNA'tar Josu

# URDULIZ'EN

Urduliz'en dagoan abadeari omenaldi bat egitera goaz, Berasaluze'tar Jabier'eri, ZER aldizkariaren atal onen bidez.

Urduliz'ko eleizea, oso antxiñakoa da, zaarkituta ta makestuta, lorrintzeko arriskuan egoan eta konponketa batzuk egin ondoren, barriztua izan da, bari bat legez aurkitzen da orain.

\* \* \*

Gure eleiz au onelan geraturik, eskerrak emotera goaz, ni ta Urduliz'tar guztiak Xabier abadeari.

Berau goratzea danontzat bearrezko eginkizun bat da.

Berau izan da lanon asmatzaille, gertakizunon burutzaille, konponketa guztien asitzaille.

\* \* \*

Beronek, lanetan langille zintzo ta gartsu bat lez jokatuta, erritar batzuk lagundurik, eleiz ikusgarri

bat sortu dau. Benetan ikustekoa, erabarriturik, baiña antxiñako irudiak eta egitura zainduta, aldatu barik.

izan daitela danontzat eredu bat.



\* \* \*

Antxiñako euskal-eleizak zaintzea eta babestea euskaldunen ekintza bat izan bear da, oneek agertzen dauskuez garai bateko berezitasunak; gure euskalkondaira sendotzeko Euzkadi ezagutu bear dogu eta gure lanetan jarraitu.

\* \* \*

Xabier ZER aldizkariaren arpideduna da eta onelan, aldizkari onen bidez, eskerrak emotera gatoz atal au eskiñiaz, omenaldi bat bezela, nik eta Urduliz'tarrok batera.

ESKERRAK ZURI ETA ZUGAZ GAGOZ!

## ARERIOAK

### Goiria

*Sendiak beti izan dauz arerioak, Arerio, etsai askok eskubide guztiak kentzen dautsoez. Onein iritxiz gizonak dagiez laterriak, ez sendiak. Laterriaren oiñarri gizona da, ez sendia. Sendia ezer ez da eurentzat. Dana gizona.*

*Kaltegarriak ziñez irakaskintza onein ondoreak.*

*Sendiaren oiñarria ezkontza da ta arerio-etsai oneik diñoenez ezkontza ez dau egin Jainkoak. Ezkontza gizona mundura ekartzeko zubia besterik ez da. Au olan-da ezkontzaren elburuak aaztu egiten dabez. Sendia deseztu. Sendiaren arerioak asko dira, alan be, bitan berezitu daikeguz: barrengoak eta kanpokoak.*

#### 1: BARRENGOAK

*Nausitasunik - eza: Aita eta amak agindu bear dabe etxean; etxeko errege-erregin dira. Jaungoikoaren ordezkooak.*

*Menpekotasunik-eza: Seme-alabak gurasoen menpean egon bear dabe. Euren esana egin.*

*Erljiñorik-eza: Jainko-legeak agintzen ezpa'dau sendian, nasakeria, ta gaiztakeria izango dira. Ezkontza-maitasuna il egiten da Jaungoikorik barik. Ez da izango Jainko-bildurrik sendi ortan. Bata sunik, bake ta zorionik be ez. Erljiñorik-eza sendia-aren areriorik aundiena da.*

#### 2: KANPOKOAK

*Oitura-ustelkeria. Bein oitura txarrak sendiaren jabe egin dira-*

*nean, sinismena otzitu egiten da; ezkontza-lokarriak nasaitu. Bein biurria sendi-barruan sartu danean, dana lurrera dator. Ez da izango alkar-maitasunik. Nagusi ta menpekoan arteko ar-emonik be ez.*

*Sendi ori zoro-etxe biurtuko da ta zoriona ta bakearen orde, burrukak eta zoritxarra izango dira bertan. Sendia deuseztu egingo da.*

*Sendiaren kanpoko beste arerio batzuk.*

*Argitalpenak, jolasak, eta gizarte-biltzarrak. Arrisku aundia sendiarentzat argitalpenak: sasi-jakintza-buruak, nobela ta aldizkariak. Orobat zinea, ondartzta mendi-ibillerak. Berez txarrak ez diran gauzok, sendiaren arerio biurtzen dira sarritan ondo erabiltzen ez diralako.*

# LATERRI-ARTEKO ARAZOA

Israel'go lurraldean dagozan Palestin'darren arazoa, ez da ulertzeko erreza, konpontzeko gatxagoa, orregaitiño.

Aurreko zenbakietan erabili dogun jaiari jarraituz, ona emen aita Elias'egaz alkar-izketa bat.

\* \* \*

— Zer deritxazue Palestina'ko lurrari begira, Juda'tarrak aitatzen dabezan erlejiño-eskubideai?

— Jainkoaren naia eurak beteten dabela zintzo sinisten dabena Juda'tarrak ba-dagoz eta eurai buruz antxiñako igarleen igarkizunak beteten dagozela uste dabe. Olako zerbait esaten dabe: «Millaka urte dirala Jaungoikoak emon euskun lur au, orregaitik gatoz ona barrero. Palestina'tar itsu ta aurpegi-gogor oneik ez dauke eskubiderik emen egon edo geratzeko».


Baiña Juda'tarrak ona etorri baiño lenago, guk geure izena emon geuntsola Palestina'ri aiztuten dabe. Eta Abraan'eri eta onen ondorengo guztiai emon jakela lur au ez dabe gogoratzen. Begin, Isaak'en semea dalako Abraan'en odolokoa ba'fa, neu be Abraan'en ondorengo naz, Ismael'en semea nazan ezkerok.

Guztiok gara Abraan'en odoloko semeak eta au gu palestinatarrontzat tamal mingarria: Juda'tarrai ainbeste errik egin dautseezan zorrak guk ordaindu bear doguzala. Eta orain Auswich'eko martirien semeen ilgai izatera eldu gara.

\* \* \*

— Zelan ikusten dozuz gerora begira, Judatar eta Palestina'tarren arteko artu-emonak? Izan leiteke obekuntzarrik?

— Eziña izango danik ez dot uste. Baiña Sion'darren burubide edo ideologiz, Israel-barruan ez da izten beste erririk bardintasunean ibiltzen. Euren burubideak ezin dau olakorik eroapenez artu. Guk Palestina'rako araudia gertatu geinke, erri-agintea edo demokrazia ezarri, erlejiño-bako gobernu bat ipiñi... erri batek ez besteak eskubide geiago ez daukala... Baiña Sion'darren oiñarrizko gogamen ori ez da egokia. Juda'tarren laterriaren gogamena, beste erriai biziten itzi baiño egiten ez dautseena aldatu bear da. Olan izan ezik. Talmud'ek diñoan lez, gu Juda'tar ez garanak gorrotagarri gara. Eta burubide au ez da Israel'ena bakarrik, arabiar eta palestindarren arteko ezaupidea da. Liburuetan, antzerkietan, zineetan, agertzen da arazoa. Palestina gaiaz Ann Frak'en egunerokoa edo Leon Uris'en Urteera'ren bestekorik ez dago.



*Aita Elias umeen lorategian, iru-txirriduna barrizatzen.*

Beste alde batetik, dana da zurrunbillo edo nasketea. Nortzuk dira Palestina'koak? Guztiok daukagu izutzilleen irudia.

\* \* \*

— Baiña zergaitik dira Juda'tarrak ain ezagunak munduan?

— Bi milla urtetan munduan zabal, diasporan ibilli diralako, eta gu Palestina'tarrak emen egon gara. Orregaitik dauke ainbeste laguntza Europa'n eta Ameriketan.

Europa'k Juda'tarrak aldendu egin gura izan dauz eta Hitler ankerra il zan ezkerok, an geratu ziranaiu esan jakke: «Joan gura dozuen tokietara eta gugandik edozetariko laguntza artuko dozue. Euki zeinkeez izkilluak. Frantzi'tik isillean eroan guda-ontziak. Beljika'tik ur astuna, su-tximista, nuklear edo kizi-indarrezko egazkiñak. Nai dozuena emongo jatzue, baiña joan zaitez. Ori ondo artzea ete da? Ondo artze negargarria benetan!

Ainbeste Juda'tar Palestina'tarren aurka ba'dabiltz, ziorik aundiena, sartaldekoen jokabidean dago.

Suiza'ko irakasle batek asarratuta eta amurruz esan ebana datort burura: «Zuok Palestina'tarrok, Tel-Aviv, Haifa ta Jerusalem'era su-danbadak jaurti zeinkeez, baiña ez Zurich'eko egazkiñetara.

Nik Suiza'tar lagun oneri au esango neuskio: «Juda'tar edo Palestina'tar bat zauritutea baiño gurago dot, Suiza'ko edozein egazkin, utsik ba'dago lertutea. Giza-odol-tanta batek askoz geiago balio dau egazkin guztiak baiño.

LETONA'k

# EUSKAL-GAIAK

Gaur egunean datozen gramatkarik geienak, euskera utsez datoz idatzita. Aurrerakada miragarria! Baiña iñok ez dauz ulertzen. Madrildar batek gramatika-ugaritze orri, aize-ontzi edo globo puztu orrei, «maquillaje gramatical» esango leuskie.

Egun oneitan, azken-aldi onetako gramatika batzui begiratu bat egin dautset. Ez daukadaz guztiak aurrean, jakiña, udazkenean perretxikoak lez sortu dira-ta, nor geiagoka. Onetan eta kaleetako nabarmenkeria agertzen ez gara, ez, urri geratu. Begiratu batean, aurrerapide galanta izango litzakez gramatika orreik, euren barruko azalpena eragozpenez beterik ez ba'lego. Ori zori txarra!

Ikasleai takean-takean entzuten dautsedanez, euskeraz idatzita dagozan gramatikok iruntsitea baiño obe ei'dabe Punta Lucero porturako daroezan arritzarrai eutsitea. Nok egin aurrera euskera arloan orrelako gramatikak erabilirik? Ulertuko ete-dabe egilleak eurak an darabilen euskera ulertzeiña? Edozein gai jakiñerazoteko, ango berbak, ango adierazpen illunak, ango idazkera biurri ta naastua! Ikasle gixajoak! Or datoz gero gure errietara euskaldun-barri ta ezjakin orreik sakelean «irakasle-agiria» gorderik eta, beraz, irakasle dotore ta dirdiratsu biurtuta, gora aundiko «nor bait» diralakotan. Iru miñututan jarraian —besterik ezean— euskeraz barba egin gura izango leukee, baiña ezin; enparaduakaz euskeraz berba egiteko aalegiñak egiñarren be, alperrik: alkar ezin ulertu daikee.

Eurak baiño gixajoagoak, ostera, eskoletan eta ikastoletan jausi daitezkan neskato-mutikoak! Zein euskera aukeratuko ete-dabe ikasleak: «irakasle dirdiratsu» orrein euskera traketsa, ala euren gurasoak txiki-txikitatik irakatsi eutseen euskera laua ta egunorokoa? Erri jatorrak darabilen berbetea, ala goitik beera —indarkeriz— sartzeko aalegiñak egiten diarduenen izkerea? Euskera bizia, ala euskera illa? Euskera askatzaillea —democracia—, ala euskera zapaltzaillea —dictadura—? Alkarregaz berba egiteko balio dauan euskera, ala liburuetan buruz ikasteko baiño balio ez dauan euskera? Norbere *etxeko* ta *errialdoko* euskalkia —orixe da «lengua materna»— ala kanpoko ulergaitz eta ondatzaillea? *Ondatzaillea* diñot, bai. Guztiz bat nator norbaitek esan dauanz: «Franco'k berrogei urtetan baiño kalte geiago egin dautso amar urte oneitan Bizkai'ko euskereari/indarrez sartu nai daben euskera *sasi-batu orrek*».

*Ona da linguistika; baiña linguistikak ondamedirik aundienera daroa pedagogjaren aurka ba'doa. Eta gure artean orixe jazoten dala ikusten dogu argi-argi:*

*izkuntzalari (linguista) onak GUTXI (Koldo Mitxelena, M. Lekuona, A. Villasante, A. Akesolo), sasi - irakaslariak (falsos pedagogos) UGARI, zentzundunak URRÍ, ondamedia NEGURRI.*

*Izan aurrean au; ez da, gero, ezelako igarpen bat, azken-urteotan bizkaitar guztiok argi ta garbi ikusten dogun ekintza negargarriaren ondorena baiño:*

*Bizkaia'k, Bizkai'ko erriak, iñoiz be ez dau onartuko bizkaiera ez dan euskalkirik. Il aal izango dabe, bearbada, bizkaiera, baiña beronegaz batera ilgo da euskera be Bizkaia'n. Ez egin beste zoro-amesik, arren!*

*Ez al-doguz, ba, gure begien aurrean Bizkai-mugako erriak? Gipuzkoa-barruan dagoz, baiña bizkaiera dabe euskalki. Urteak joan, urteak etorri, gizaldiak joan, gizaldiak etorri..., artu ete-dabe gipuzkera euren euskalkizat? Galdu bai egin dabe bizkaiera askok; baiña bizkaierearen orde z gipuzkera artu? Ezta amesetan be! Bizkaiera galdu, gipuzkera onartu ez, eta erdere euranandu. Orixe bai.*

*Iñon jazoten ez dan naastea gure artekoa. Lotsagarria benetan!*

\* \* \*

Gai «xelebreak» irakurri dodaz gramatika orreitan («xelebreak» itza gipuzkoar askok *barregarriak* edo adierazoteko erabilten dabe; emen, «xelebrekariak» esatea izango litzake egokiago).

Ona emen, ba, orreitariko gai berezi bat (idatzia agertuko dot, egillea ez); bere liburuiko 21'garren orrialdean dakar (erderaz dator, eta obeto ulertzen da, barruan datorren euskera «batua» be obeto ulertzeko, egillea Bilbo'n jaioa ta «euskaldun-berri» izanarren be):

«GRAMATIK ERREGELAK (hiztegi moderno! Norbaitek esan eustana: «Txo, ori english dok? Eta nik: «Bah!, tal cual: gramatic regulations!!!»).

«UKAN: es, sobre todo —diño «gramatikalari» orrek—, el auxiliar de todos los verbos transitivos; pero también se usa sólo (sic), es decir, independiente, con significado de TENER, cuando se tiene algo que no está encerrado en alguna parte. Asi: nik begiak ditut: yo tengo ojos (los ojos no los tengo guardados en una caja) (—pero los tengo dentro de las cavidades orbitarias o cuencas, y con los párpados que los ocultan a discreción; o sea, cuencas = cajas; párpados = tapas de las cajas. Bigarren mako-arteko au neurea da—).



EDUKI —diño berak— es para algo que lo que lo tenemos guardado. Así: buruan ideia bat daukat = tengo una idea en la cabeza (dentro de la cabeza). Pero: buruan ileak ditut = en la cabeza tengo pelos (fuera de la cabeza).»

Berezia, egiaz, bereizkuntza ori! Filosofizale sakona be sakona zeaztasun ori erabilten dauan erria! Arau ori erabili bear izan ezkerro, sakulako estutasun barregarriak eta buruauste bakanak izango leukeez (edo *edukiko* leukeez euren *buru-barruan*) idazleak eta berbalariak. Baiña ez larritu: ez asi, mesedez, erri filosofizale orren billa: ez dago.

Gai ori, ain zuzen be, bestetara dakar azken-orduko beste gramatikalarari batek (Miguel Sagüés, *Gramática elemental vasca*, 47 orri.):

«Para decir «tener» en euskera existe también el verbo EDUKI (daukat, daukazu...).

La diferencia entre ambos parece ser:

—EDUN: «tener» de un modo interior o interiorizado.

(Adibidez —adibideak neureak dira—: Zenbat urte *dozuz*? Asmo zuzenak *dabez*. Indar aundiak *doguz*. Buruko min aundia *dot*. Azkue'k berak: «Lena-go, abereak izurritea *zutenean...*» (*Euskalerriko Yaktintza* I, 31).

—EDUKI: «tener» materialmente, externamente o en algún lugar» —diño Sagüés'ek.

(Adibidez —adibideak neureak dira—: Zenbat intxaur *daukazuz* mai-gaiñean? Aurten sagarrik asko *daukagu*. Yon'ek basoan aretxak *daukaz*.)»

*Ikusi dagigun gure aurretikoak diñoena; era biak naastean darabillez:*

*Fray Joan de Zumarraga'k, Durango'ko seme ospatsuak (1468-1548), izan igarokorra darabil (igarokorra = transitivo; igaro aditzetik artuta, Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n darabilguna; beste batzuek, ostera, iragankorra diño: iragan'etik artuta, lapurdierazko itza. Auzoko azak askoz obeak. Edo-ta, «Urrutiko intxaurrak amalau, bertaratu ta lau»). Emen: «Çeuc yçango doçu vear dana çeuretaco»: vos tendréis lo que es menester para vos. (Aren esku-titzetik jasota, 2'garren orri).*

Kapanaga mañariarrak (1661'garren urtean ilzan): «Onetan indar geiago *eu(ki)teko*: para tener más fuerza en esto (*Exposición breve de la doctrina cristiana*, 25 orri.). «Bengaien desseorik ez *eu(ki)tea*»: no tener deseo de venganza (id. 74).

Azkue'k berak: «Len aipatu diran lankide orien gainera, beste batzuk *izan ditut*»: Además de esos colaboradores antes mencionados, he tenido otros (*Eusk. Yak.* I, 27).

Añibarro arratiarrak (1748-1830): «Gogorturik *nauko* ikusteak nik egin dodana»: me tiene endurecido lo que yo he hecho (*Esku-liburua*, 132).

J. A. Mogel'ek, Markiña'ko eibartarrak (1745-1804): «Ez *nauka* ostera atrapaurik»: no me tiene nuevamente cogido *Peru Abarka*, 64).

«Kirikiño» mañariarrak (1866-1929): «Espetxe nagositik etorran azeri zarrak laster igarri eban zelako «lelantoni» *eukan* aurrean (Abarrak, 6).

J. B. Eguzkitza lemoarrak (1875-1939): «Eun milloe lauerleko urteroko etorria edo errentia *daukenak* (*Gizarte*, 24).

Azkue lekeitiarrak barriro: «Kanta aietako erdi-tsuak... agertzaka *dauzkat*»: como una mitad de aquellas canciones... las tengo sin publicar (*Eusk. Yak.* I, 11).

Ikusi daiguzan orain erderazko esaldi ezagun batzuk: zelan euskeratu dabez euskal-idazleak? Ona emen:

También tengo otras ovejas (Joan 10, 16): Leizarraga'k (1571): «Berce ardirik-ere *badut*».

*Duvoisin'ek (1859 ta 1865 bitartean), Olabide'k eta Orixe'k: Baditut, ba-ditut. Kerexeta'k: «Ba-dodaz. J. B. Eguzkitza'k eta Aita Arriandiaga'k, barriz: Ba-daukadaz eta Bai-daukadaz. Liturjiakoak: «beste ardirik bere badaukat».*

Beste adibide bat: Un hombre tenía dos hijos (Lukas 15, 11): *Duvoisin'ek: «Gizon batek bazituen bi seme». Olabide'k eta Orixe'k: «Gizon batek bi seme zitun. Kerexeta'k: «Gizon batek seme bi eban = zituan».*

Beste bat: ¿Qué haré, pues no tengo dónde reunir mi cosecha (mis frutos)? (Lukas 12, 17): Leizarraga'k «...ezen *eztut* nora bil ditzadan neure fruktuak». Axular'ek: «...ez *dut edukitzeko* lekhurik ere». Olabide'k: «...Neure uzta non bildu ez *dikat*-eta?» (Aita Etxeberria'ren ikutuaz: «Nere uzta non bildu ez bait-dut!»). Orixe'k: «Ez *baitaukat* uztak *eukitzeko* lekurik?» (lar, bearbada, urrengo ataltxoan —Lukas 12, 34—: Donde está vuestro tesoro, allí estará también vuestro corazón: «Ondasuna *daukazuten* tokian, biotza ere an *dukezute. Urte guziko Meza*, 768). Kerexeta'k: «nire frutuak gordeteko lekurik ez *daukate*-ta?». Liturjiakoak: «Nire frutuok non sartu ez *daukat*».

Baiña, zer da E(D)UKI? Ibon Sarasola'k berba orren mugaketan (edo «definizioan») diñoanez, auxe izango litzake: «Norbaitek edo zerbaitek bere baitan edo barruan, edo tokiren batetan sartuta edo berari lotuta zerbait izan» (*Euskal Hiztegi Arauemailea* II, 212).

Alan be, adibideetan ikusi dogunez, ez da arau ori beteten, Sarasola'ren «definizio» ori ez dator adibideakaz bat. Eta, «berari lotuta» ori, zelan ulertu bear da: materialki, ala moralki?, ala bietara?

Amaitzeko: Puxana jaunak bizkaiera-aditza sakon be sakon aztertu dauan ezkerro, berak argitu leikegu egokien gai au.

ARETXA

Oto ta Pototo

ZURIAK ALA BALTZAK

Oto ofizio eta lanbide askotako gizona dogu. Etxegintzan lan gitxi eta baserrira jo deua berrira. Artzain egin jaku. Ardi mordo bat be ba-dauko.  
Zuriak eta baltzak.

\*\*\*

Prontxio jauna erriko dendaria da. Bidean Oto'rekin topa dau. Oto ardiekin dator aurrera. Prontxio'k eldu dautso berbetako gogoakin:

- Txo, Oto, ardi onek zenbat kilometro egiten dabe egunean-egunean?
- Nortzuk, zuriak ala baltzak?
- Zuriak, txo.
- Ba, bost kilometro edo...
- Eta, baltzak?
- Bardin.

\*\*\*

- Entzun, Oto, zenbat jaten dabe ardi onek egunero-egunero?
- Nortzuk, zuriak ala baltzak?
- Zuriak, txo.
- Ba, amar kilo belar inguru.
- Eta, baltzak?
- Bardin.

\*\*\*

- Adi, Oto, eta urtean ziar zenbat ille emoten dau ardi bakoitzak?
- Nortzuk, zuriak ala baltzak?
- Zuriak, txo.
- Ba, lau kilo artille bakotxak.
- Eta, baltzak?
- Bardin.

\*\*\*

21.<sup>a</sup> ERENTZUNA

1	A	M	A	I	R	U		A		A		N				
2	N		L				G	A	L	T	Z	A	R	P	E	
3	A		E	C	U	N	A	X	A	X	I		A		G	
4	I		T	A			B	A	T	E	O		N		A	
5	T	A	U	T	I		E	X	Z		N	A	T	O	R	
6	A		Z	X	Z	U	K					Z	X	G		
7	S	A	K	A	R	X	K	X	O		A		A	G	A	
8	U		E	T	X	C	A	Z	T	E	L	A			R	
9	N		N	U	N	X	T		O						B	I
10	A	N			F	I	Z		I		E	R	N	E		
11			B		B		O	T	A	R			A	R	I	
12	N	A	I	Z	A	B	E		Z	U		P	X	R		
13	A	T	Z						A	X	E	G	A	T	U	
14	X	X	T						U	D		X	R	X	N	
15	U	R	U	N	I	R	U	D	I	Z	K	I			I	A

Gofi

Prontxio jaunak atz egiten dautso bere buruari: Oto burutik ondo ete dago?  
-Oto, entzun egizu eta ondo entzun be eta neure esanari adi-adi egon: zergaitik galdeten dozu beti, zuriak ala baltzak, esanaz?  
-Ardi zurial neuriak dirazelako.  
-Eta, baltzak?  
-Be bai.

Prontxio jaunaren asarria!  
Eskuan ekarren bastoiagaz buruan emon ez eutsonean...!  
Oto'k irripar gaiztua ezpañetan.

ARRINDA'tar Anes

22.<sup>a</sup>

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1															
2	X		X		X										
3							X				X				
4	X		X												
5											X				
6															
7	X										X				
8															
9		X			X										
10	X				X			X		X		X		X	
11															
12	X		X								X		X		X
13							X						X		
14	X		X											X	
15															

Gofi

EZKER-ESKOIRA: 1. Andas.-Ingenioso.-2. Octubre.-3. Padecer.-Solar.-Y, pues.-4. Teléfono.-5. Apalmos.-A ver si.-6. Correa.-Remotamente.-7. Con, por.-Pastor de vacas.-8. Tiene.-9. Tuétano.-Previsor.-10. Padre.-11. Telegrafía.-12. Caspa de la cabeza.-13. Mezcla.-Hermoso.-14. Mutuamente.-15. Jueves.-Linea, renglón.  
GOITIK-BERA: 1. Cuerdo.-Caña.-2. Vamos a ver.-Allí.-3. Comer (medio día)-Riesgo.-4. En paz, sin deuda.-5. Avergonzado.-Detrás.-A ver si.-7. Tú, usted, vos.-Repudio.-8. Ahi.-Sufijo.-9. Cabeza.-Vete.-Repudio.-10. Telefona.-11. Destino (nombre propio)-Salado.-12. Trillar.-13. Garrapata.-Buh.-14. Sufijo de acción.-15. Lejos.-Entre el río.  
OAR'bat: Gurutz-izki au, Sabin'en eredu idatzia da, esan daigun ba, í, 1, 1 ta abar.

# EUSKERAZALEAK

## BIZKAIA'N BIZKAIERAZ

Erriko biztanleak autarki-txartelez eskaturik, Bermeo'ko udaletxean buru ta nagusi diranai kaixo ta agurrez, agur biozkorrez eta bosteko garrez txingartsu emotera noakie.

Agur ta erdi ba, BERMEO!

\* \* \*  
Bizkai Buru Batzarraz bat izan edo-ta ez izan, Aldundiaz bekozko illunez eta argiz izanik be, eta Eusko Jaurlaritzaz adiskide naiz asarrez izan arren, jarrai begizue aukeratu dozuen bide orretan.

Bizkaia ta Euskerazaintza begi onez ikusten dozuezelarik, edo-ta Bermeo'tarren bizikera olakoa izanik, Bermeo'rako ta Bizkai'rako arazoak bizkaiera utsez azaltzen, jaunik aundienak zarie-ta.

\* \* \*  
Bizkaia erkian ainbat eta ainbat endore, alkate euskaldunak izanik, zuok bakarrik zarie egin izan dozuezan eta egiteko batzarretako asmo ta eginkizunak bizkaiera utsez adierazoten dozuezenak. Iñoik-iñoiz, besteren batzuenak be bai, ezkerrera laban eta txirrist egiñekoenak.

\* \* \*  
Azken irakurri dotana Durango'koena izanik, erri aretako endore jaunak zazpi biderrez obeto daki amaren ondoan ikasi eban bizkaiera. Batu-nastua baiño bai beintzat.

Durango'n izaten diran pozaldi txiki-urriak eta garratz-samiñezko andi ugariak euzkera zapuztuan emon dauskuz. Bizkaieraz, orain, adierazoten dausku. Aurrera ta biotz-on, Patxi!

\* \* \*  
Bermeo'ko portuan! Txo! Atrakaizu batela!» eta bizkaiera be entzun geinke.

LANDAJUELA'TAR ANTON'ek

## "EUSKERAZALEAK" IPUIN-SARIKETEAK

**EUSKERAZALEAK** Taldeak, igaz lez, ipuin-sariketea eratzen dau. Sariketa onetara sartzeko, oneik izango dira baldintzak:

- Euskera biziz idatziak izan bearko dabe. Erriak darabilen euskalkietariko bat erabilliaz idatziak.
- Ipuin itzulpenak ez dira onartzen.
- Luzerea, orri-alde bi, bitarte bi lerroartean dituela.
- Epea: Jorraillaren azkenerako gure lan-etxean (Colón de Larrea-tegui 14, 2.ª eskoia) izan bearko dabe.
- Sariak: Iru sari izango dira: 1.ª 25.000 pezeta; 2.ª 20.000 pezeta eta 3.ª 15.000 pezeta.
- Ipuin sarituen jabe "EUSKERAZALEAK" izango eta ZER gure aldizkarian argitaratuko dira. Sari barik geratzen diranak, idazleen esku geratuko dira eta eurak billa etorri bearko dabe.
- Oitura dan lez, ipuina izen-ordeaz bialdu eta izen-orde ori gaiñean daroan azal baten barruan sartu izen-ordea ta izena batera daroan txartela.
- Maikoen erabagia, bagilleko (ekainilliko) ZER'en agertu da.

1982, epaila

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

# Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS  
VIZCAINA



BIZKAIKO  
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia